

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

**ARAUA MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,
UDAL ZERBITZU ETA JARDUEREI DAGOZKIEN TASEN ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkezten du araua aldatzeko ondoko proposamena:

2021ean, tokiko entitateek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Entitateei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak II. tituluaren III. kapituluaren 3. sekzioan jasotakoari jarraituz ezarrita dauden udal taseen zenbatekoaren gainean. Hobari horiek jasotzeko arrazoiak COVID-19aren osasun krisiarekin lotuta egon behar dira, eta krisi horrek bereziki eragindako kolektiboei aplikatu ahal izango zaie. Hobarien ondorioek 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izan dezakete.

Hau jasotzen du orain ordenantzak:

7. art.- Salbuespenak

Kartografia digitala, edo antzeko teknikekin egindakoa, eskuratzeko tasatik salbuetsita izango dira: Lurraldeko Herri Administrazioak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Udalak dokumentu urbanistikoak egiteko hartzen dituenak eta Udalak lan bat egiteko orduan hartutako dokumentazioa eguneratuta itzultzea eskatu eta hala ekarriko dutela agintzen duten profesionalak.

Beste hau jartzea proposatzen dugu:

7. art.- Salbuespenak eta hobariak.

Kartografia digitala, edo antzeko teknikekin egindakoa, eskuratzeko tasatik salbuetsita izango dira: Lurraldeko Herri Administrazioak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Udalak dokumentu urbanistikoak egiteko hartzen dituenak eta Udalak lan bat egiteko orduan hartutako dokumentazioa eguneratuta itzultzea eskatu eta hala ekarriko dutela agintzen duten profesionalak.

% 25eko hobaria izango dute 2021. urtean, 2020. urtean 14.796 € urteko errenta pertsonal erabilgarria izan duten erabiltzaileek edo 30.383 €¹ edo txikiagoa izan zuten bizikidetzak unitateek, zerbitzu hauetan: hondartzetan emandako zerbitzuak, Pertsona eta ondasunentzako babes eta prebentzio zerbitzuak, Mugikortasun departamentuaren zerbitzuak eta hiri garraio zerbitzua.

Donostian, 2021eko abuztuaren 3an.

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko bozeramailea

1 Altzako familiek dute errenta erabilgarri txikiena (Hiri ekonomiaren barometroa, 2020).